MERKATARITZA ZUZENDARITZA: POLITIKAK (2022-23)
Martxoko proba

IZEN-ABIZENAK: _____

NAN: _____

1.

"Eroski Sannia" markako produktuak erreferentziatzat harturik, azaldu haiek sor ditzaketen onura motak eta erlazionatu "produktuaren ezaugarriak" kontzeptuarekin.

2. Nola laguntzen dute "Eroski Sannia" markaren zeinuek produktuaren posizionamenduari? Beste zein marketin aldagai erabiltzen dira horretarako? Erantzunak arrazoitu.

3. Eroskiren produktu zorroaren orekari ekarpen positiboa egiten produktu-lerroa al da "Eroski Sannia" zure iritziz? Erantzuna arrazoitu.

4. Sepiia bere prezio politika aztertzen ari da, eta, horretarako, ondorengo datuak hartu ditu kontuan: Bere produktuen arrakastan oinarriturik, bere merkatu-penetrazioa handitu nahi du datozen urteetan. Horretarako, bere egungo webguneaz gain, hainbat banatzaileen denda fisikoak erabiltzen hasiko da bere arropa saltzeko. Horrek produkzio-bolumenak handitzea eskatuko dio eta horrek dakartzan ekonomia-eskalak aprobetxatu ahal izango ditu. Gainera, badaki egungo egoera ekonomiko ahula dela medio, bezeroen prezio-sentikortasuna handitu egin dela eta hori ere kontuan hartu nahi du prezioak zehazterakoan, beti ere bere balio proposamen diferentziala ahaztu gabe.

4.1. Prezioa zehazterakoan ekoizleak kontuan hartzen dituen faktoreak identifika itzazu eta sailkatu barnekoak ala kanpokoak diren.

4.2. Demagun Sepiia "*Hautemandako balioaren*" teknika erabiltzen ari dela bere alkandora berri baten prezioa zehazterakoan, eta, jasotako datuen arabera, ebaluaketa indizea 1,33koa dela. Zer esan nahi du horrek? Bezeroak produktuan hautemandako kalitatearekin bat datorren prezioa zehaztu nahiko balu, zein prezio jarri beharko lioke produktuari? Erantzunak arrazoitu.